

Jazarpen mania

Norbaiten edo zerbaiten kontra idaztearen hutsaltasuna nahi nuen agertu, lagunok. Norbaiten edo zerbaiten alde ezin denean idatzi, zer balio du norbait edo zerbait horren kontra idazteak? Dialektikarik egon al daiteke batzuk kontra bai baina besteek alde ezin dutenean egin? Alegia, Eurovision irabazi al daiteke ahoan alpagata sartuta?

Kariño beharraz hitz egiten zuen Katixak hauteskunde biharamunean. Eta nire buruari galdetzen diot, euskaldun jendea ez ote dabilen kariño gabe bizitzera kondenatuta. Euskalduna ez ote den paranoiko izatera kondenatuta.

Adibidea: esnatu naiz, Belle and Sebastian-en kanturik xamur eta zozoena ipini dut. Zoriontsu egoteko gogoz nago. Nahiz eta hauteskunde biharamuna izan, urtxintxa bat intxaur bat ari da jaten etxe aurreko zuhaitzean, katuak ez du pentsurik bota azpiletik kanpora, postariak koloretako hiru gutun ekarri dizkit, ogi banatzaileak irribarre egin dit. Sukaldeko mahaian ohar bat: “Lanetik deitu dizute gaur joan beharrik ez duzula esateko. Ez zaitut esnatu nahi izan!” Dudarik gabe, zoriontsu egoteko motiborik ez zait falta.

Kalean, paperezko lehendakari gaiak, oraindik irribarrez, emaitzei sorgor. Ezikusiarena egin dut, nire aldarteari eusteko asmo irmoa daukat. Liburu bat irakurri nahi dut, eguzki izpi batek jotako banku batean.

Kilometro batzuk egin ditut ibilian, hesiz eta zuloz eta putzuz eta autoz betetako bideetatik, eta eguzkiak gaur duen izpi bakarra herri honetan dagoen banku bakarrean jotzen duela ohartu naiz. Emakume bat banku horren erdi-erdian eserita, Eroskiko poltsez inguratuta. Tokitxo bat utziko didan galdetuko diot. Ezer esan aurretik bere atzetik pasa naiz, gertuagotik ikuste-



DANI BLANCO

Eider Rodriguez

Olasagarre

Agirre

ko, Imanolen ama iruditu baitzait, eta hala bada, euskaraz egin ahal izango diot. Ez da. Beste itzuli bat, gertuagotik ikusi nahi dut, bere oinetakoak, paparrean daramana txapa bat da ala berokiaren marka? Belarritakoak zilarrezkoak baditu aukera gehiago euskalduna izateko urrezkoak baditu baino, eta Eroskiko poltsatik irteten den egunkariaren mantxeta

(edo tipografia sikiera!) ikusterik izango banu... orduan, orduan jakingo dut zein hizkuntzatan egin. Bere ile koloreak eta makillaje ezak potentzialki euskalduna dela esaten didate, baina eraztunak... eraztun gehiegi erdalduna ez izateko: “Euskaraz ba al dakizu?” galdetzea ere baneukake, baina hori gehiago da ondotik gauza inportante bat esateko, ez eta tokitxo bat eskatzeko baino.

Euskalduna bada, euskaraz egin nahi diot, euskaraz egin “behar” diot, esaten dut nire kabutan.

“Barkatu...”, ahalik eta gehien mugituz ahoko giharrak: “...utziko al zenidake tokitxo bat?”. Eta une batez isildu da, eta une batez emozio ezagun hori, benetan emozio kotidiano hori –etruskoa ote naiz? Bai? Ez?– eta erantzuna: “*Yo en euskeras no...*”. Eta nire gogo gaixo paranoiko hau: “*Yo sí, por desgracia*”, erantzuteko, baina irri ergel bat egin dut, eta “*¿me deja un sitio?*” esan diot, irakurtzeko beharrezkoa den kontzentrazioa ezin bilduz.

Oraindik autobusa hartzea, erosketak egitea, eta anbulategian txanda eskatzea gelditzen zait... Zenbat elukubrazio, jazarpen eta espioitza, lan kilo erdi marrubi erosteko!

Eguzki izpia geroz eta ahulagoa da –nire aldarte bezala–.

Ez ote litzateke xamurragoa, euskaldunok hiruki beltz bat tatuaturik eramango bagenu eskumuturrean, edo galtzerdi bakoitza kolore batekoa, barne sailburu hark bezala? ■

Ez ote litzateke xamurragoa, euskaldunok hiruki beltz bat tatuaturik eramango bagenu eskumuturrean, edo galtzerdi bakoitza kolore batekoa, barne sailburu hark bezala?